



Herriko gune arautuetan ibilgailuak aparkatzean jabego publikoa erabili edo aprobetxatzeari buruzko ordenantza (TAO)

Ordinance regulating the private use or special use of the local public domain through the parking of vehicles in regulated areas of the town (OTA)

Udalak, bere eskumenen barruan, herritarren beharrak betetzen lagungarri izan daitezkeen era guztietako ekintzak bultzatu eta nahi hainbat herri-zerbitzu eskain ditzake.

The municipality, within the scope of its powers, can promote all types of activities and provide any public services that contribute to satisfying the needs of citizens.

Aparkamendu arloan dagoen eskariari erantzun nahi izateagatik, ingurumenaren kalitatean duen zuzeneko eraginagatik eta herri garraioen eta oro har trafikoaren arintasunean duen ondorioagatik, aparkamendua arautzeko orduan, beharrak, eskura dauden espazioen erabilera eta diru aldetik horrek dakartzkien ondorioak herritar guztien artean zuzen banatzeko moduko irizpideak kontuan hartzen saiatu behar du.

Therefore, addressing the demand for parking, as well as its clear influence on environmental quality and its impact on the fluidity of public transport and traffic in general, leads to dealing with parking regulations based on criteria of fair distribution of needs, use of available spaces and economic repercussions among citizens.

Hiriko aparkamendu zerbitzua hobeto arautzearren ondorengo arauak emango dira:

In the interests of better regulation of the public parking service, the following regulations are promulgated:

1. artikulua.

Ordenantza honen xedea Udalak araututako hiriko aparkamendu zerbitzurako arauak ezartzea da.

Article 1.

The purpose of this Ordinance is to establish the rules of the regulated public parking service.

2. artikulua.

Udalak araututako aparkamendu sistema Udalaren herri zerbitzutzat joko da.

Article 2.

The municipal regulated parking system will be considered a local public service.

3. artikulua.

Ordenantza honek araututako sektoreak honakoak dira:

Article 3.

The sectors regulated by this Ordinance are the following:

1. sektorea: Gudarien plaza.
2. sektorea: Merkatuko aparkalekua.
3. sektorea: Nafarroa plaza.
4. sektorea: Calbeton Zumardia, Markiegi, Marinel, Bastinuixa eta Montreal.
5. sektorea: Artzabalgo aparkalekua.

- Sector 1. Gudarien plaza.
- Sector 2. Parking Mercado.
- Sector 3. Nafarroa plaza.
- Sector 4. Alameda Calbetón, Markiegi, Mariñel, Bastinuixa, Montreal.
- Sector 5. Parking Artzabal.

6. sektorea: Herrigunea - Angulero, Astillero, Maxpe, Agirretxe, Mogel, Elizburu, Itziar bidea, Latzurregi, San Josepe, Osio, Ifar kale, Itsas-Begi, Hondartza eta Marinel-Arrantzale kaleak, Miramar.

7. sektorea: Alde Zaharra – Foruen plaza, Plaza zaharra, Ifar kale, Itur kale, Lersundi, San Roke, Ostolaza, Portu eta Sokagin kaleak.

4. artikulua.

4.1.- 1. sektorean asteko egun guztietan 09:00etatik 20:00etara, urte osoan, arautuko da ibilgailuen aparkamendua, larunbat arratsalde (13:00etatik aurrera), igande eta jaiegunetan izan ezik.

≥ 5,5 m-ko ibilgailuak edo ibilgailu taldeak debekatuta egongo dira, urte osoan.

4.2.- 2. sektorean horrela arautuko da ibilgailuen aparkamendua:

- Neguan: aste osoan zehar 09:00etatik 20:00etara, larunbat arratsalde (13:00etatik aurrera), igande eta jaiegunetan izan ezik.
- Udan: aste osoan zehar, 09:00etatik 20:00etara.

Ordenantza honen ondorioetarako, Negu garaitzat urriaren 1etik apirilaren 30era bitarteko aldia hartuko da; eta uda garaitzat maiatzaren 1etik irailaren 30era bitartekoa.

≥ 5,5 m-ko ibilgailuak edo ibilgailu taldeak debekatuta egongo dira, urte osoan.

4.3.- 3. eta 4. sektoreetan horrela arautuko da ibilgailuen aparkamendua:

- Maiatza: larunbat, igande eta jaiegunetan 09:00etatik 20:00etara.
- Ekaina, uztaila, abuztua eta iraila: aste egun guztietan 09:00etatik 20:00etara.

≥ 5,5 m-ko ibilgailuak edo ibilgailu taldeak debekatuta egongo dira, urte osoan.

Sector 6. Urban zone - Angulero, Astillero, Maxpe, Agirretxe, Mogel, Elizburu, Itziar bidea, Latzurregi, San Josepe, Osio, Ifar kale, Itsas-Begi, Hondartza, Mariñel-Arrantzale and Miramar.

Sector 7. Old part- Foruen plaza, Plaza zaharra, Ifar kale, Itur kale, Lersundi, San Roke, Ostolaza, Portu and Sokagin.

Article 4.

4.1.- In sector 1, vehicle parking will be regulated every day of the week from 9:00 a.m. to 8:00 p.m., except Saturday afternoons (from 1:00 p.m. onwards), Sundays and holidays.

Vehicles or groups of vehicles ≥ 5.5 m will be prohibited all year round.

4.2.- In sector 2, vehicle parking will be regulated:

- Winter: Every day of the week from 9:00 a.m. to 8:00 p.m., except Saturday afternoons (from 1:00 p.m. onwards), Sundays and holidays.
- Summer: Every day of the week from 9:00 a.m. to 8:00 p.m.

For the purposes of this Ordinance, the winter season is understood to be the period between October 1 and April 30; and for the summer season, the period from May 1 to September 30.

Vehicles or groups of vehicles ≥ 5.5 m will be prohibited all year round.

4.3.- In sector 3 and 4, vehicle parking will be regulated:

- Month of May: every Saturday, Sunday and holidays, from 9:00 a.m. to 8:00 p.m.
- Months of June, July, August and September: every day of the week, from 9:00 a.m. to 8:00 p.m.

Vehicles or groups of vehicles ≥ 5.5 m will be prohibited all year round.



4.4.- 5. sektorean horrela arautuko da ibilgailuen aparkamendua: Urte osoan: doan eta denbora mugarik gabe.

4.5.- 6. sektorean horrela arautuko da ibilgailuen aparkamendua: Maiatza, ekaina, uztaila, abuztua eta irailean, asteko egun guztietan, 24 orduz.

≥ 5,5 m-ko ibilgailuak edo ibilgailu taldeak debekatuta egongo dira, urte osoan.

4.6.- 7. sektorean horrela arautuko da ibilgailuen sarbidea: Urte osoan: asteleheneetik ostiralera 08:00etatik 13:00etara, larunbatetan 08:00etatik 12:00etara, eta igande eta jaiegunetan itxita.

5. artikulua.

Ordenantza honetan txartel mota desberdinetarako ezarritakoa alde batera utzi gabe, adierazitako tokietan aparkatzeko, erabiltzaileek beharrezko aparkaleku-tiketa hartu beharko dute horretarako ipiniko diren makinetan. Udalak onartutako prezioetan eskuratu ahal izango dira.

Ordenantza hau horrela aplikatuko zaie motorrei: motorrei egokitutako guneetan dohainik eta denbora mugarik gabe aparkatu ahal izango dute. Egokitutako gune hauetan lekurik ez bada, aparkaleku arruntak erabili ahal izango dituzte, gune bakoitzean dagokion tasa ordainduta eta denbora mugak errespetatuta, gainontzeko ibilgailuek bezala.

Sidecar-ak eta atzealdean 2 gurpil dituzten motorrak ibilgailu kontsideratuko dira, ezingo dute motorrentzat egokitutako guneetan aparkatu

5.1.- 1. sektorean 30 minutuko aparkaldia egin ahal izango da dohainik.

5.2.- 2. sektorean 2 gune bereiziko dira:

– Aparkaldi luzeko eremua: urte osoan zehar bertakoen txartela duten ibilgailuentzat izango da, dohainik eta denbora mugarik gabe.

4.4.- In sector 5, vehicle parking will be regulated as follows: All year round: free and without time limit.

4.5.- In sector 6, vehicle parking will be regulated as follows: May, June, July, August and September, every day of the week, 24 hours.

Vehicles or groups of vehicles ≥ 5.5 m will be prohibited all year round.

4.6.- In sector 7, vehicle access will be regulated as follows: All year round: Monday to Friday from 08:00 to 13:00, Saturdays from 08:00 to 12:00, and Sundays and holidays closed.

Article 5.

Without prejudice to the provisions of this Ordinance for the different types of cards, to park in the delimited areas, users must provide themselves with the corresponding parking ticket, which will be provided by the vending machines.

This Ordinance will apply to motorcycles in the following way: they will be able to park for free and without a time limit in the areas enabled for them. If they do not have space in these authorized areas, they may use conventional parking, paying the corresponding fee in each area and respecting the time limits, like the rest of the vehicles.

Sidecars and motorcycles with 2 rear wheels will be considered vehicles, they will not be able to park in areas authorized for motorcycles.

5.1.- Parking time is established as 30 minutes, free, in sector 1.

5.2.- Sector 2 is divided into two areas:

- Long-term parking area: it will be allocated free of charge and without a time limit to vehicles with a resident card throughout the year.

– Aparkaldi motzeko eremua: gehienez 3 orduko aparkaldia baimenduko da eta erabiltzaile guztiek txartela atera beharko dute. 3 orduko iraupena ez da egun batetik bestera igaroko, eta tiketa egun berean baliogabetuko da.

Gune horretan aparkatzea doakoa izango da bertakoen eta udatiarren txartela duten ibilgailuentzat. Hala ere, 09:00etatik 18:00etara dagokion tiketa atera beharko dute eta aparkaldia ezin izango da 3 orduetik gorakoa izan.

5.3.- 3. eta 4. sektoreetan tiketak 30 minutuko frakzioetan lortu ahal izango dira, gehienez 5 orduz.

Bertakoen eta udatiarren txartela duten ibilgailuek 3. sektorean egun osoko txartela eskuratu ahal izango dute, eta 4.ean dohainik eta denbora mugarik gabe aparkatu ahal izango dute.

5.4.- 5. sektorean doan eta denbora mugarik gabe aparkatu ahal izango da.

Autokarabanekek gehienez 72 orduko egonaldia egin ahal izango dute. Denbora-muga hori ez zaie aplikatuko dagokion egoiliar-txartela duten autokarabanei.

Karabanak aparkatzea debekatuta egongo da, garraiatzen dituen ibilgailuari lotuta daudenean izan ezik (hanka egonkortzailerik jarri gabe).

5.5.- 6. sektorean bertakoen txartela duten ibilgailuak baimenduko dira, baita txartel bereziak (lan-txartela, irakasle txartela, gremioen aldi baterako baimen-txartela, ...) dituztenak ere, denbora mugarik gabe eta doan.

Uztailean eta abuztuan, eskoletako patioetan, bertakoen eta udatiarren txartela duten ibilgailuak baimenduko dira, doan eta denbora mugarik gabe.

5.6.- 7. sektorean zamalanetarako ibilgailu baimenduak, mugikortasunagatik edo irisgarritasunagatik baimendutako herritarren ibilgailuak eta gremioen ibilgailuak (aldi baterako edo beharra denean) izango dute sarbide eskubidea, aurrez Udaltzaingoa baimena eskatuta.

- Short parking area: maximum parking of 3 hours will be allowed and all users must obtain their ticket. In the 3 hours of parking there will be no day break, and the ticket will be cancelled on the same day it is issued.

Parking in this area will be free for vehicles with resident and vacationer cards. However, between 09:00 and 18:00 they must obtain the corresponding ticket and the parking time may not exceed 3 hours.

5.3.- In sectors 3 and 4, tickets can be obtained for fractions of 30 minutes, up to a maximum of 5 hours.

In sector 3, vehicles with a resident or vacationer card will be able to obtain a full-day ticket, and in sector 4 they will be able to park for free, without a ticket or time limit.

5.4.- In sector 5, you can park for free, without a ticket or time limit.

Motorhomes can stay for a maximum of 72 hours. This time limit will not apply to motorhomes that have the corresponding resident card.

Parking of caravans is prohibited, except when attached to the vehicle transporting it (without stabilising legs).

5.5.- In sector 6, vehicles with a resident card will be authorised, as well as those with special cards (work card, teaching card, correct permit card for unions,...), for an indefinite period and free of charge.

Vehicles with a resident or vacationer card will be authorised in school playgrounds during July and August, free of charge and without a time limit.

5.6.- In sector 7, entry will be allowed for loading and unloading vehicles, vehicles of citizens authorised due to mobility or accessibility problems, and union vehicles (on a specific basis or in case of need), with prior request to the Municipal Police.



6. artikulua.

Txartela ibilgailuaren haizetakoaren eskuineko behealdean ipini beharko da, kanpotik erraz eta ongi ikusteko moduan. Txartela kristalean itsatsita egotea ezinbestekoa da, bestela, ez du baliorik izango.

7. artikulua.

Aparkamenduaren iraupena ez da aparkatze-tiketean adierazitakoa baino luzeagoa izango. Gunearen arabera aldatu egingo da iraupena. Adierazitako denbora pasa ondoren, ibilgailua dagoen sektoretik lekuz aldatu beharko da, eta bi ordu igaro arte ezingo da lehengo sektorera itzuli.

8. artikulua.

Zamalanetarako guneak horretarako erabiliko dira baimendutako ordutegian eta berezkoak dituzten baldintzetan, eta txartelik gabe aparkatu ahal izango dute. Zamalanetarako ordutegitik kanpo, gune horiek arauotan aurreikusitakoaren menpe geratuko dira.

9. artikulua.

Indarrean jarraituko dute kale bakoitzean ezarrita dauden seinale mugatzaile bereziek (gelditzeko debekua, bus geltokia, taxiak, zamalanetarako guneak, motoentzat zehaztutako guneak, ...).

10. artikulua.

Urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bateratuaren xedatutakoari jarraituz, Ordenantza honetan ezarritako aparkatzeko eta gelditzeko edozein arau urratuz gero, dagokion zehapenez gain, ibilgailua aparkalekutik kendu edo ibilgetu ahal izango da gidaria identifikatu arte.

Article 6.

The card must be placed on the lower right side of the vehicle's windshield in a way that is easily visible from the outside. It is essential that the card is stuck to the glass, otherwise it will be invalid.

Article 7.

The duration of parking may not exceed that indicated on the parking ticket. The duration will vary depending on the area. After the indicated time has passed, the vehicle must be moved from the sector in which it is located, and will not be able to return to said sector until two hours have passed.

Article 8.

The loading and unloading areas will be used for this purpose during the authorised hours and they will be able to park under their own conditions without a card. Outside loading and unloading hours, these areas will be subject to the provisions of these regulations.

Article 9.

The special limiting signs (prohibition of stops, bus stops, taxis, loading and unloading areas, space for motorcycles, etc.) established on each of the streets in the affected area will remain in force.

Article 10.

In accordance with the provisions of the consolidated text of the Law on Traffic, Circulation of Motor Vehicles and Road Safety, approved by Royal Legislative Decree 6/2015, of October 30, the violation of any of the established parking and stopping rules in this Ordinance, in addition to the corresponding sanction, may result in the removal of the vehicle or its immobilization until the identification of its driver is achieved.

11. artikulua

Aparkamendu tiketa erabiltzeko orduan salbuetsita daude ondorengo ibilgailuen erabiltzaileak:

- 1.- Gidaria barruan duten taxiak.
- 2.- Elbarrituen ibilgailu egokituak, behar bezala baimenduta badaude, horretarako gordetako tokietan.

Toki horiek guztiak beteta egonez gero, beste edozein aparkaleku-plazatan utzi ahal izango dira tiketik atera beharrik gabe eta denbora mugarik gabe, euren txartel propioa (elbarriena) haizetakoaren gainaldean bistan jarrita. Hala ere, ahalik eta azkarren aldatu beharko dute ibilgailua eurei gordetako lekuren batera.

Nafarroa plazan (3. sektorea) aparkatzeko tiketa lortu beharko dute, dagokion tasa ordainduta.

- 3.- Zamalanetan ari diren ibilgailuak, horretarako bereziki jarritako guneeetan.
- 4.- Erreserba berezietan aparkatzeko baimena duten eta behar bezala identifikatuta dauden ibilgailuak.

12. artikulua.

1.- Erabilera edo tarifa murriztua duten baimenak, beti kontuan izanda Probintziako Trafiko Buruzagitzak emandako zirkulazioko baimenean agertzen den pertsona hartuko dela ibilgailuaren jabetzat, honela arautuko dira:

a) Bertakoak:

Bertakoak txartel guztiek, edozein kategoriatakoak direla ere, eman eta hurrengo urteko TAO denboraldia hasi arte izango dute balioa.

Matrikulazio berriko ibilgailuek bertako txartela eskuratu ahal izango dute, baldin eta ibilgailuak eta haren titularrak mota horretako txartelerako ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta, gainera, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga Deban ordaindu bada.

Article 11.

Users of the following vehicles are exempt from using a parking ticket:

- 1.-Taxis with a driver inside.
- 2.-Vehicles adapted for the disabled, duly authorized, in the places reserved for this purpose.

If all these places are occupied, they will be able to park in any other parking space without having to obtain a ticket and without a time limit, with their own card visible on the dashboard. However, they must move the vehicle to a place reserved for adapted vehicles as soon as possible.

In Nafarroa plaza (sector 3) they must obtain the parking ticket, paying the corresponding fee.

- 3.-Vehicles dedicated to loading and unloading in areas specially enabled for this purpose.
- 4.-Duly identified vehicles authorized to park in special reserves.

Article 12.

1.- Authorizations or reduced rates, always taking into account that the owner of the vehicle will be considered the person who appears as such in the circulation permit issued by the Provincial Traffic Headquarters, will be regulated as follows:

a) Resident:

All resident cards, in any of their categories, will be valid until the start of the OTA season of the year following the year of their issuance.

Newly registered vehicles may obtain a resident card as long as both the vehicle and its owner meet the conditions established for this type of card and, in addition, the Tax on Mechanical Traction Vehicles has been paid in Deba.



Bertakoen txartelak modalitate hauek izango ditu:

a.1.- Bertakoak arrunta: txartel hau eskuratzeko aukera izango dute dagokion urteko urtarrilaren 1ean Deba Udalean erroldatuta dauden pertsonak, data horretan Deba Udalean alta emanda dauden ibilgailuentzat.

Horrez gain, bertakoen txartela lortu ahal izateko, egunean izan beharko dute zergen eta tasen ordainketa txartela jaulkitzen den unean, eta dagokion ordenantza fiskalean bertakoentzako bereizgarria lortzeko jarritako tarifa ordaindu beharko dute.

Urtean zehar ibilgailu aldaketa eginez gero eta zaharrari Udalean baja emanez gero, bertakoen txartel berria eskuratu ahal izango dute, aurrekoa ordeztuko duena.

a.2.- Bertakoak entitatea: txartel hau lortu ahalko da pertsona juridiko baten izenean agertzen diren ibilgailuentzako, baldin eta ibilgailuak eta haren erakunde titularrak egoiliar arruntaren txartela lortzeko ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta, gainera, erakunde horrek egoitza soziala Deban badu, ordenantza honen aplikazio-eremuaren barruan.

Txartel hau dagokion tasaren truke eskuratu ahal izango da eta bertako arruntaren txartelaren baliokidea izango da eskubideetan eta erabileran.

a.3.- Bertakoak berezia: txartel hau eskuratzeko aukera izango dute Deba udalerrian erroldatuta dauden pertsonak, urtean zehar ibilgailuari beste udalerrri batean baja eman eta Deba Udalean alta ematen badiote, betiere jabeak zerga eta tasen ordainketa egunean badu txartela jaulkitzeko unean. Jabearen errolda agiria eta ibilgailuaren zerga ordainketa agiria aurkeztu beharko dira.

The resident card will have the following modalities:

a.1.- Ordinary resident: This card may be obtained by those people who, on January 1 of the corresponding year, are registered in the municipality of Deba for those vehicles that on said date are registered with the Deba City Council.

Furthermore, in order to obtain the resident card, they must be up to date with the payment of taxes and fees at the time of issuance of the card, and pay the fee established for the resident badge in the corresponding tax Ordinance.

Changing vehicles throughout the year and deregistering the old one at City Hall will allow them to obtain a new resident card that will replace the previous one.

a.2.- Resident entity: This card may be obtained for those vehicles that appear in the name of a legal entity, provided that both the vehicle and the entity that owns it meet the conditions established for obtaining the ordinary resident card and in addition, said entity has its registered office in Deba, within the scope of application of this Ordinance.

In order to obtain this card, you must pay the fee established for said badge in the corresponding tax Ordinance and, in terms of rights and use, equivalent to the ordinary resident card.

a.3.- Special resident: This card may be obtained by those people who are registered in the municipality of Deba, for those vehicles that during the year have unsubscribed the vehicle in another municipality and registered in the Deba City Council, provided that the owner is up to date with the payment of taxes and fees at the time the card is issued. The owner's registry and proof of payment of the vehicle tax must be presented.

Horrez gain, txartel hau eskuratu ahal izango dute urtean zehar Debako udalerrian, ondorio guztiekin, erroldatzen direnek. Kasu honetan, jabearen eta ibilgailuaren errolda agiriak, biak, aurkeztu beharko dira.

Bertakoen txartel berezia bertako arruntaren txartelaren baliokidea izango da eskubideetan eta erabileran, eta indarrean dagoen tasa ordaindu beharko da txartela jaulkitzeko.

b) Udatiarrak: txartel hau eskuratu ahal izango dute txartela ematen den urteko urtarrilaren 1ean Debako udalerrian erroldaturik ez dauden eta ibilgailua bertan erroldaturik ez duten pertsona fisikoek, baina Debako udalerrian etxebizitza jabetzan edo alokairuan (hilabete gutxienez, alokairu-kontratua aurkeztuta) dutenek. Gainera, zerga nahiz tasen ordainketa egunean izan beharko dute.

Etxe jabeen 1. graduko (gurasoak, seme-alabak, ...) familiartekoez ere eskatu ahal izango dute txartel hau, familia liburua (lehen orrialdea (ezkontideen informazioa) eta eskatzailearen izena agertzen den orrialdea), jaiotza agiria edo ahaidetasuna ziurtatzen duen beste agiriren bat aurkeztuta.

Txartel horrek dagokion urteko TAO denboraldian baino ez du balioko, indarrean dagoen tasa ordaindu beharko da txartela jaulkitzeko, eta etxebizitza bakoitzeko txartel bat eskatu ahal izango da.

c) Txartel bereziak:

c.1.- Lan txartela: txartel hau eskuratu ahal izango dute Deban erroldatuta ez dauden pertsona fisikoek, baina lana Deban, Ordenantza honen aplikazio-eremuaren barruan, egiten dutenek, indarrean dagoen tasa ordainduta.

Era berean, txartel hori eskuratu ahal izango dute Deban erroldatuta egon arren, Ordenantza honen aplikazio eremutik kanpo lan egiten duten pertsona fisikoek eta erabiltzen duten ibilgailua lan egiten duten enpresa edo entitatearen izenean agertzen bada, edo ibilgailua leasing edo renting bidez badute, indarrean dagoen tasa ordainduta.

Those who register throughout the year, for all purposes, in the municipality of Deba will also be able to obtain this card. In this case, the registration documents of the owner and the vehicle, both, must be provided.

This card will be equivalent in rights and use to the ordinary resident card, and for its issuance you will have to pay the current rate.

b) Vacationer: This card may be obtained by persons who, as of January 1 of the year the card is issued, are not registered in the municipality of Deba, nor do they have a vehicle registered there, but who have their own home or rent (minimum one month, presenting the rental contract) in the municipality of Deba. In addition, they must be up to date with the payment of taxes and fees.

1st degree relatives (fathers/mothers, children, etc.) of the owners of the houses may also request this card, by presenting the family book (first page (information on spouses) and page on which the applicant's name), birth certificate or other document proving relationship.

This card will only be valid during the OTA season of the year of its issuance, for its issuance you will have to pay the current rate, and you can request only one card per household.

c) Special cards:

c.1.- Work card: Persons not registered in Deba, but who work in Deba, within the scope of application of this Ordinance, may obtain this card by paying the corresponding fee.

Likewise, those individuals who, being registered in Deba, work outside the scope of application of this Ordinance and the vehicle they use is in the name of the company or entity for which they provide their services, or have the vehicle on lease or renting, may obtain this card paying the corresponding rate.



Txartel hori "bertakoak" txartelaren baliokidea izango da eskubide eta erabilerari dagokionez, balio epea izan ezik, txartel berezi horrek dagokion urteko TAO denboraldian baino ez baitu balioko.

Kasu batean zein bestean, interesdunak berak eskatu beharko du txartela, eskaeraren zergatia justifikatuz, enpresaren ziurtagiria aurkeztuz, eta indarrean dagoen tasa ordaindu ondoren.

c.2.- Irakasle txartela: txartel hau eskuratu ahal izango dute Luzaro eskolako eta Mendata institutuko langileek, dagokion urteko apirilaren 1a baino lehenago Udalean eskaera eginda.

Txartel honek 6. sektorean aparkatzeko eskubidea emango du maiatzean, ekainean eta irailean, asteleheneetik ostiralera, 8:00etatik 18:00etara bitartean.

2.- Edozein baimenen kasuan, TAO indarrean dagoen bitartean, baimen bakoitzari dagokion baldintzetakoren bat betetzen ez bada, edo txartela iruzurrez erabiltzen bada, baimena edo txartela baliorik gabe geratuko da, ezar daitekeen zehapen ekonomikoari kalterik egin gabe.

3.- Edozein txartel edo baimen berezigatik ordaindutako kopurua ez da, inola ere, itzuliko.

4.- Txartela galdu edo hondatzen bada, indarrean dagoen tasa ordaindu beharko da txartel berria jaulkitzeagatik.

5.- Baimen berezien eskaera idatziz egin beharko da Udaltzaingoa edo harrera bulegoan horretarako Udalak onartutako eskabide eredu erabilia, kasuan kasu, dagokion tasa aurrez ordainduta.

Udalak egoki deritzon baimenak eman ahal izango ditu mugatutako aparkamendu guneetarako eta dagokion aldirako.

This card will be equivalent in rights and use to the resident card, except for the validity period, since it will only be valid during the OTA season of the year of its issuance.

In either case, the card must be requested by the interested person, justifying the reason for which they are requesting it, presenting proof from the company, and after paying the current fee.

c.2.- Teacher card: Workers at the Luzaro school and the Mendata institute may obtain this card, upon request at the City Hall before April 1 of the year for which the card is requested.

This card will give the right to park in sector 6 during the months of May, June and September, Monday to Friday, from 8:00 a.m. to 6:00 p.m.

2.- In the case of any authorization, during the validity of the OTA, failure to comply with any of the requirements corresponding to each authorization, or fraudulent use of the card, will lead to the cancellation of the authorization or the card, without prejudice to the economic sanction that may be imposed.

3.- Under no circumstances will the amount paid for any card or special permit be returned.

4.- In case of loss or damage to the card, the current rate for issuing the new card will have to be paid.

5.- The request for special permits must be made in writing at the Local Police or at the citizen service office using the application model approved for this purpose by the City Council, after payment, if applicable, of the corresponding fee.

The City Council may grant the authorizations it deems appropriate for the delimited parking areas and for the corresponding period.

13. artikulua. Zigor-araubidea

1. Norbaitek ordenantza honen edozein artikulua edo Alkatetzak ordenantzaren garapen gisa ematen dituen xedapenak urratzen baditu, hori trafiko eta zirkulazioko arau-haustetzat hartuko da, eta, ondorioz, zigorrak jarriko dira, legezko prozeduraren bidez.

2. Ibilgailuaren titularrak, hala eskatzen bazaio, arau-haustea egin duen gidari erantzulea zein den identifikatu behar du, eta dagokion prozedurazko tramitean obligazio hori justifikaziorik gabe betetzen ez badu, berari jarriko zaio 13.3.g) artikuluan jasotako arau-haustearen zigorra.

3. Arau-haustek:

a) Ordenantza honetan adierazitako tiket edo txartelik gabe aparkatzea.

b) Aparkatzeko tiketean agertzen den gehieneko denbora pasatzea.

c) Errotazio handiko zonan berriz aparkatzea, aparkatzeko gehieneko denbora bukatu eta bi orduko epea pasatu gabe.

d) Egoiliarrentzat gordetako gunean aparkatzea, zona horretako bizilagunen bereizgarria eduki gabe.

e) Ezgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko Europako txartela edo, hala badagokio, mugikortasun mugatuko pertsonaren bereizgarria agerian ez jartzea.

f) Nafarroa plazan (3. sektorea) aparkatzea ezinduentzako Europako aparkatze-txartelarekin, dagokion aparkaleku-tiketetik gabe.

g) Arau-haustea egin duen gidari erantzulea ez identifikatzea, aurrez eskatuta ere.

h) Ordenantza honetan jasotako bereizgarria behar den moduan ez erabiltzea.

13. Sanctions regime

1) The violation of any of the articles of this Ordinance, as well as the provisions that are issued by the Mayor's Office in its development, will be considered violations of the traffic and circulation regulations and will entail the imposition of sanctions through the established legal procedure.

2) The owner of the vehicle, duly requested to do so, has the duty to identify the driver responsible for the infraction and if he fails to comply with this obligation in the appropriate procedural process without justified cause, he will be sanctioned as the author of the infraction contained in article 13.3. g).

3) The following are considered violations:

a) Parking without obtaining a ticket or card contemplated in this Ordinance.

b) Exceed the parking time indicated on the parking time ticket.

c) Park again in a high turnover area without two hours having elapsed since the end of the maximum parking time.

d) Parking in an area reserved for residents without having the badge.

e) Failing to place the European parking card for people with disabilities, or the person with reduced mobility badge, where applicable, in a visible place.

f) Parking in Nafarroa plaza (sector 3) with a European parking card for people with disabilities without the corresponding parking ticket.

g) Failure to identify the driver responsible for the violation, upon request.

h) Failure to properly use any of the badges contemplated in this Ordinance.



i) Bereizgarria emateko beharrezko den betebeharren bat ez betetzea, eta Udalari ez jakinaraztea (horretarako jarritako epean).

j) Bereizgarrien titularrek ez betetzea helbide-aldaketa edo ibilgailuaren eskualdatzea jakinarazteko obligazioa.

k) Bereizgarria jaso zuen ibilgailuaren jabetza eskualdatu ondoren ere, haren bereizgarria erabiltzea.

l) Tiket edo bereizgarri manipulatu, faltsu, baliogabetu edo desegokia erabiltzea.

m) Ordenantza honetan adierazitako beste edozein baldintza ez betetzea.

Alkatetzak edo, hala badagokio, eskuordetzaz ariko den organoak onar dezake trafikoaren arloan egiten diren arau-hauste ohikoenen taula bat, bai eta aplika daitezkeen zehapenenak ere. Dena den, arau-hauste horiek modulatu ahal izango dira, gertatzen diren inguruabarren arabera.

14. artikulua. Zigorrek eta araubide-neurriak

1. Arau-hausteak zehatuko dira urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bateratuaren V. tituluaren eta gainerako lege-xedapenetan, xedapen osagarrietan eta udal-ordenantzetan ezarritakoaren arabera.

2. 13.3 artikulua a), b), c), d), e), f), g), eta m) puntuetan tipifikatutako arau-hausteak 60 euroekin zehatuko dira

3. 13.3 artikulua h), i), j), k), eta l) puntuetan tipifikatutako arau-hausteak 90 euroekin zehatuko dira, eta bereizgarria baliogabetuko da. Horretaz gain, k) eta l) puntuetan jasotako kasuetan, beste bereizgarri berri bat lortzeko ezintasuna ezarri ahal izango da, gehienez ere bi (2) urteko eperako. Hori guztia, Ordenantzaren tarifetan ezarritako zenbatekoak eta sor

i) Failure to comply with any of the obligations necessary to issue the licence, and failure to notify the City Council (within the period set for this purpose).

j) Failure of the holders of the badges to comply with the obligation to communicate the change of address or transfer of the vehicle.

k) Use the badge once ownership of the vehicle for which it was granted has been transferred.

l) Use a manipulated, falsified, cancelled, expired or unsuitable ticket or badge.

m) Failure to comply with any other condition indicated in this Ordinance.

The Mayor's Office or, where appropriate, the body acting by delegation may approve a table of the most common traffic violations, as well as applicable penalties, without prejudice to the modulation to which these may be subject due to the concurrent circumstances.

Article 14. Sanctions and regulatory measures

1. Violations will be sanctioned in accordance with the provisions of Title V of the consolidated text of the Law on Traffic, Motor Vehicle Circulation and Road Safety, approved by Royal Legislative Decree 6/2015, of October 30 and other legal provisions, complementary and municipal ordinances.

2. The infractions classified in points a), b), c), d), e), f), g), and m) of article 13.3 will be sanctioned with 60 euros.

3. The infractions classified in points h), i), j), k), and l) of article 13.3 will be sanctioned with 90€, and the cancellation of the badge. In the cases contemplated in points k), and l) the impossibility of obtaining another new badge may also be imposed for a period of up to two (2) years, all of this, without prejudice to demanding payment, even by means of

daitezkeen tasak premiamendu-bidez ere ordaintzea eskatzeari kalterik egin gabe.

4. Aurreko bi paragrafoetan adierazitako zenbatekoak Alkatetzak edo, hala badagokio, eskuordetzaz ariko den organoak berrikusi eta eguneratu ahal izango ditu.

5. Artikulu honetako 2. eta 3. puntuetan adierazitako zehapen ekonomikoei kalterik egin gabe, 13.3 artikuluan tipifikatutako arau-hausteak oztopo larria dira trafikoa eta aparkatzeko zerbitzu publikoa antolatu eta hobetzeko, eta, beraz, ibilgailua ibilgetu edota kendu eta horretarako prestatutako lekuan utzi ahal izango dira.

6. Ibilgailua ibilgetzeak edota bide publikotik kendu eta ibilgailua aurreko atalean aipatutako gordailuan egoteak ordenantza fiskalen xedatutako tasak sorraraziko dituzte, eta ibilgailua jaso aurretik tasa horiek guztiak ordaindu beharko dira.

7. Ordaindutako aparkaldi-denbora gaindituz gero, salaketa baliogabetzeko tiketa lortu ahal izango da tiketari adierazitako amaiera-orduaren ondorengo bi (2) orduetan, dagokion tasa ordainduta, eta betiere, ordainketa ibilgailua ibilgetu edo erretiratu baino lehen egiten bada.

Salaketa baliogabetu eta dagokion tasa ordaindu egin ahalko da tiketa ematen duten makinetan edo Debako Udaltzaingoaren bulegoan.

Azken xedapen bakarra.

Ordenantza hau indarrean sartuko da bere testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean.

obligation, of the corresponding amounts set in the rates of the Ordinance, as well as the rates that may arise.

4. The amounts indicated in the two previous sections may be reviewed and updated by the Mayor's Office or, where appropriate, by the body acting by delegation.

5. Without prejudice to the economic sanctions indicated in points 2 and 3 of this article, the infractions classified in article 13.3 constitute a serious obstacle to the organisation and improvement of traffic and the public parking service, which may result in to the immobilisation of the vehicle and/or its removal and deposit in the place prepared for this purpose.

6. The immobilisation and/or removal of the vehicle from public roads, as well as its stay in the places referred to in the previous section, will accrue the fees provided for in the tax ordinances, fees that must be paid in full before vehicle recovery.

7. In the event that the paid parking time has been exceeded, a complaint cancellation ticket may be obtained during the two (2) hours following the end time indicated on the ticket, paying the corresponding fee, and provided that payment is made before the vehicle has been immobilized or removed.

The cancellation of the complaint and the payment of the corresponding fee can be made at the ticket vending machines or at the Deba Local Police office.

Single final provision.

This Ordinance will come into force on the day following the publication of its full text in the OFFICIAL BULLETIN of Gipuzkoa.